BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6087

252/2011 DEKRETUA, azaroaren 29koa, Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkaria den kide bat kargutik kentzeari buruzkoa.

Energiaren Euskal Erakundea eratzeko den azaroaren 24ko 9/1982 Legearen 8. eta 9. artikuluetan xedatuta dagoenez, Zuzendaritza Batzordean lehendakaria eta erakundearen sozietateetako lehendakariak ez ezik, bost kontseilari ere izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioren ordezkari jardungo dutenak. Gainera, beste kide batzuk ere izango ditu batzordeak, energia edo industriaren eremuan izen ona duten pertsonen artean izendatuak.

Arau horiek aintzat hartuz izendatu zen Marcelino Oreja Arburua jauna apirilaren 27ko 127/2010 Dekretuz.

Hori dela-eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak eskatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko azaroaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari moduan Energiaren Euskal Erakundean kontseilari den Marcelino Oreja Arburua jauna kargutik kentzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau argitaratzen den jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 29an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.